



## UDALBILTZA

---

### PRENTSA OHARRA

---

## BATZAR OROKORRA 2019

Udalbiltzak bere Batzorde Eragilea berri du gaur Durangoko (Bizkaia) San Agustin Kultur Gunean ospatu duen Batzar Orokorrean. **Jabi Asurmendi**, Arakaldoko alkatea, izendatu dute lehendakari, eta **Pili Legarra** (Asteasuko alkatea, Gipuzkoa) nahiz **Irantzu Antoñana** (Vianako zinegotzia, Nafarroa) lehendakariorde. Irailaren 18an, iragarri zuten Udalbiltzaren sorreraren 20. urteurrenean, eman zuten jakitera zuzendaritza berriketa.

Gainerako zuzendaritza kideak: **Lamia Arcas** (Laudioko zinegotzia, Araba); **Jon Arriola** (Berriatuko alkatea, Bizkaia); **Asier Gonzalez** (Bilboko zinegotzia, Bizkaia); **Itziar Amezaga** (Errigoitiko zinegotzia, Bizkaia); **Andoni Gartzia** (Astigarragako zinegotzia, Gipuzkoa); **Koro Etxeberria** (Hernaniko zinegotzia, Gipuzkoa); **Xanti Kapendegi** (Ahetzeko zinegotzia, Lapurdi); **Xebax Christy** (Hazparneko zinegotzia, Lapurdi); **Aitor Elexpuru** (Berako alkatea, Nafarroa); eta, **Oihan Mendo** (Garesko alkatea, Nafarroa).

Ima Garrastatxu, Durangoko alkateak, eman dio hasiera ekitaldiari. Bere hitzetan, “bereizten gaituzten muga administratiboen gainetik zubiak eraikitze bokazioa duen erakunde publiko nazionala da Udalbiltza; gaur eta hemen, Euskal Herriaren eraikuntzan aurrera pausuak eman eta proposamen zehatzak garatzeko helburua duena, betiere, lurralde garapenaren, ekonomia sozial eraldatzailearen, jasangarritasunaren eta saretzearen ildoetatik tiraka.”

Agurraren ondotik, Udalbiltzaren sorreran eta hurrengo urteetan parte hartu zuten kideak omendu dituzte, haien lana eta konpromisoa aitortuz. Horietarik batzuk, oraindik ere, Udalbiltzakide izaten jarraitzen dute. Bertan izan dira, besteak beste, Loren Arkotxa, Mertxe Aizpurua eta Luis Intxauspe lehendakari ordeak, baita Maribi Ugarteburu, Xabier Alegria, Pablo Gorostiaga, Imanol Esnaola, Meritxel Elgezabal, Santo Kiroga eta Roke Akizu ere. Garai desberdinetako udalbiltzakideen partez, Ugarteburuk hartu du hitza, eta aurreko Batzorde Eragilearen izenean, Luix Intxauspek.



Atzera begirada egin ondotik, aurrera begira jartzeko tenorea heldu denean, zuzendaritza talde berria aurkeztu eta aho batez onartu dute, gaur egun, Udalbiltza osatzen duten hautetsiek. Intxauspereen eskutik jaso du Asurmendik lehendakari makila.

Udalbiltzako lehendakari berriak erakundearen datozen urteetarako erronkak nabarmendu nahi izan ditu, Udalbiltza unean-uneko euskal gizartearen kezka eta beharretara egokitzearen beharrarekin batera. Asurmendiren hitzetan, “Elikadura eta energia burujabetza, Euskal Herriaren barne kohesioa, herrien garapena, turismo eredu jasangarria... Udalbiltza guzti honi **nazio mailako erantzuna emateko ezinbesteko erakundea dugu**; Herrietatik eta kontzejuetatik gertu egon garen eta lekuan-lekuko arazoei aurre egiten laguntzeko prest gauden erakundea gara.” Zentzu horretan, eta udalgintzaren balioaz konbentziturik, gaur egun, herri txikiek pairatzen duten egoeraz aritu da: **“lurralde desoreka eta herri txikien despoblazioak, zinez kezkatuak gauza**. Izan ere, herri txikiak eta, oro har, landa eremua, husten ari dira.” Egoera horri buelta ematen hasteko garai da, Asurmendiren arabera: **“Ekonomia sozial eraldatzailearen bidez, egoera lazgarri honi buelta ematea posible da, gaitasunak batuz eta kontzientziazioa landuz”**.

Gaur egun, **1100 hautetsi inguruk eta 77 udalerrri partzuergokidek osatzen dute Udalbiltza**. Bost dira garatzen ari dituen proiektu nagusiak: **Hartu-eman** esperientzia eraldatzaileen bankua; euskal unibertsitateetan sortzen den ezagutza, herrien garapenaren mesedetara jartzea asmo duen **Ikerbiltza programa**; senidetzeen bidez, Euskal Herriaren barne kohesioa lantzea xede duen **Hurbiltzen plana**; **Lurgida**, Euskal Herriko app turistikoa; eta **Hauspotu**, ekonomia sozial eraldatzailearen bidez, lurralde desorekari aurre egiteko egitasmoa.